EUSKAL SINDIKATUA

# 10 CUESTIONES SOBRE LA REFORMA DEL IRPF

**Las haciendas de la CAPV y el Gobierno Vasco han acordado una nueva reforma del IRPF, que se aplicará a los ingresos que tengamos a partir de 2007. ELA ha rechazado esta reforma por regresiva y antisocial. Las siguientes 10 cuestiones explican nuestra postura.**

## 1 ¿CUÁLES SON LAS MEDIDAS MÁS IMPORTANTES DE ESTA REFORMA?

- Se baja el impuesto que pagan las rentas más altas: el tipo marginal máximo pasa del 48 al 45%, mientras el tipo marginal mínimo sube del 15 al 23%.
- Se baja el impuesto a las rentas de capital y las plusvalías: se establece un tipo fijo del 18%, más bajo que el mínimo aplicable a las rentas de trabajo.

## 2 ¿QUÉ CONSECUENCIAS TIENEN ESTAS MEDIDAS?

- Se reduce la progresividad del impuesto: cada vez hay menos diferencia entre lo que pagan las rentas altas y las bajas.
- Las rentas de capital y las plusvalías quedan exentas de la progresividad de la tarifa general.
- Se dejarán de recaudar 236,7 millones de euros al año, cantidad que hubiera venido muy bien para aumentar el gasto social. Un ejemplo: el presupuesto de vivienda del gobierno vasco es de tan sólo 177 millones de euros.

## 3 ¿TODO EL MUNDO PAGARÁ MENOS?

**No.** En la CAPV, en torno a 100.000 personas con rentas de trabajo bajas no declaran IRPF. Por tanto, una rebaja de este impuesto no les «beneficia» en absoluto. Al contrario, en la medida en que la rebaja de ingresos va a repercutir en un menor gasto social, este colectivo sale directamente perjudicado.

## 4 ¿SALEN MEJOR LAS RENTAS ALTAS O LAS BAJAS?

Como se ha dicho, quienes tienen rentas de trabajo de 8.000 euros anuales no pagan IRPF, por tanto, su ahorro es de cero euros. Por su parte, las rentas medias pagarán al año unos 130 euros menos; el chocolate del loro. Es a partir de los 60.000 euros de ingresos anuales cuando se empieza a notar la diferencia. Quienes tienen una base liquidable de 100.000 euros al año dejan de pagar 1.492 euros.

Ni qué decir tiene que establecer un tipo fijo para las rentas de capital y plusvalías beneficia a quienes tienen ingresos más altos.

## 5 ¿ES CIERTO LO QUE DICEN LAS INSTITUCIONES?

Las instituciones de la CAPV se han embarcado en una carrera propagandística para tratar de justificar esta nueva reforma fiscal. Se basan en dos argumentos. El primero, que la reforma beneficia a todo el mundo. El segundo, que, sobre todo, salen mejor las rentas bajas. Como hemos visto, estos argumentos son falsos.

## 6 ¿ES UN PUNTO FINAL?

**No.** Asistimos a un proceso de reformas permanentes del IRPF. Esta reforma es un paso más en la mala dirección.

Desde 1998 el impuesto que pagan las rentas más altas se ha reducido 11 puntos, ya que el tipo marginal máximo ha pasado del 56 al 45%.

## 7 ¿QUÉ RELACIÓN EXISTE ENTRE FISCALIDAD Y ESTADO DE BIENESTAR?

La relación es total. El presupuesto de un país es como el de cualquier familia. Para poder tener un cierto nivel de gasto, hay que tener ingresos. Si queremos tener un estado de bienestar avanzado necesitamos que haya ingresos vía impuestos. Dejar de recaudar 236,7 millones de euros al año irá en detrimento del gasto social.

## 8 ¿CÓMO ESTAMOS EN RELACIÓN CON LA UNIÓN EUROPEA?

- La presión fiscal en la CAPV es del 31% del PIB, frente al 39,5% de media de la Unión Europea. La distancia es de 4.650 millones al año. La reforma, por tanto, nos aleja de Europa.
- El gasto en protección social en la CAPV es del 19,2% del PIB, frente al 28,3% de media en la Unión Europea. Con la reforma será imposible cubrir las necesidades de vivienda, servicios sociales, educación de 0 a 3 años, asistencia sanitaria buco-dental, salud mental, renta básica...

## 9 ¿QUIÉNES HAN ACORDADO LA REFORMA?

La reforma es un acuerdo entre el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales. Sin embargo, quienes realmente la han decidido han sido el PNV y el PP. El resto del tripartito se da por enterado. El PSOE no la cuestiona. Se constata que en los temas que afectan al modelo de sociedad existe un amplio consenso político para aplicar políticas neoliberales.

## 10 ¿QUÉ DEBATE HA HABIDO?

**Ninguno.** El Gobierno y las Diputaciones han cerrado la reforma sin consulta a la sociedad. Se niega la posibilidad de debate público, político y social, de la materia más importante del autogobierno vasco. Una materia fundamental para el conjunto de la gente, porque la política fiscal determina de manera muy importante el modelo de sociedad que se quiere construir.

## CONCLUSIÓN

**La reforma del IRPF es una mala reforma.**

- **En las formas: no ha respetado los mínimos exigibles en cualquier sistema democrático.**
- **En el fondo: es un regalo a las rentas altas y del capital, sobre las que se afloja, aún más, la presión fiscal.**
- **En cuanto al modelo social que representa: reduce los ingresos necesarios para una política de mayor justicia y mejores servicios públicos.**
- **En cuanto a la comparación con otros países: nos aleja, aún más, del modelo social europeo.**

EUSKAL SINDIKATUA ELA

# 10 GALDERA PFEZ-EN ERREFORMARI BURUZ

**Eusko Jaurlaritzak eta EAEko foru ogasunek PFEZaren beste erreforma bat adostu dute, eta 2007tik aurrera izango ditugun diru-sarrerei aplikatuko zaie. ELAk uko egin dio erreforma horri, atzerakoia eta gizartearen aurkakoa delakoan. Hurrengo 10 galdera-erantzunen bidez azalduko dugu gure ikuspuntua:**

## 1 ZEIN DIRA ERREFORMA HORREN ILDO NAGUSIAK?

- Errentarik handienen gaineko zerga jaitsi dute: gehienezko tasa marjinala %48tik 45era jaitsi da; eta gutxienezko tasa marjinala, ordea, %15etik 23ra igo da.
- Kapitalaren errentei eta gainbalioei jaitsi zaie zerga: %18ko tasa finkoa ezarri da, laneko errentei aplikatzen zaien gutxienezkoa baino txikiagoa.

## 2 ZEIN DIRA NEURRI HORIEN ONDORIOAK?

- Zergaren gehikortasuna murriztu da: errenta handiengatik ordaintzen denaren eta errenta txikiengatik ordaintzen denaren arteko aldea gero eta laburragoa da.
- Kapitaleko errentak eta gainbalioak salbuetsita geratu dira tarifa orokorraren gehikortasunetik.
- Hori dela-eta, urtean 236'7 milioi euro gutxiago bilduko dute. Diru-kopuru hori ederra izango zatekeen, gizarte-gastua handitzeko. Adibidez: Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzaren aurrekontuak 177 milioi euro besterik ez du.

## 3 DENOK ORDAINDUKO DUGU LEHEN BAINO GUTXIAGO?

**Ez.** EAEn, errenta txikiko 100.000 bat herritarrek ez dute PFEZ-aitorpena egiten. Beraz, zerga hori jaisteak ez die batere onik egiten. Juxtu kontrakoa, zergak jaistearen ondorioz gizarte-gastua murrizten den neurrian, kaltetan aterako dira.

## 4 NOR ATERATZEN DA HOBETO, ORDUAN, ERRENTA HANDIKOAK ALA TXIKIKOAK?

Esan bezala, urtean 8.000 euroko errenta dutenek ez dute PFEZ-aitorpenik egin behar; beraz, aurrezkirik ere ez dute egingo. Bestalde, errenta ertainek 130 euro gutxiago ordainduko dute urtean, huskeria bat alegia. Urteko diru-sarrerak 60.000 eurotik gorakoak direnean, orduan bai antzematen dela aldea. Urteko oinarri likidagarria 100.000 eurokoa dutenek 1.492 euro gutxiago ordainduko dute.

Esan beharrik ez dago kapitaleko errentei eta gainbalioei tasa finkoa ezartzeak on egiten diela diru-sarrerarik handienak dituztenei.

## 5 EGIA AL DA HERRI-ERAKUNDEEK DIOTENA?

EAEko erakundeek zabalkunde-kanpaina bati ekin diote, zerga-erreforma berri hau zuritzeko asmoz. Bi argudio erabiltzen dituzte. Lehenengoa; erreformak denei egiten die on. Bigarrena; errenta txikikoei berebiziko onura egiten die. Baina, lehenago ikusi dugunez, argudio horiek faltsuak dira.

## 6 AZKENEKO PUNTUA IZANGO OTE DA?

**Ez.** PFEZ aldiro-aldiro aldatzen dute. Erreforma hau beste pauso bat da, okerreko bidetik noski. 1998. urteaz geroztik errenta handienengatik ordaintzen den zerga-tasa 11 puntu jaitsi da, gehienezko tasa marjinala %56tik 45era aldatu baita.

## 7 ZEIN LOTURA DAGO FISKALITATEAREN ETA ONGIZATE-ESTATUAREN ARTEAN?

**Lotura estu-estua da.** Herrialde baten aurrekontua edozein familiaren bezalakoa da. Gastu-maila jakin batera iristeko, beharrezkoa da diru-sarrerak izatea. Ongizate aurreratuaren estatu bat nahi badugu, zerga bidezko diru-sarrerak beharko ditugu. Urtean 236'7 milioi euro gutxiago biltzen badira, gizarte-gastuaren kaltetan joango da ezinbestez.

## 8 NOLA GABILTZA EUROPAKO BATASUNAREN ALDEAN?

- EAEko zerga-presioa BPGaren %31 da, Europako Batasunean bataz bestez %39'5. Elkarrengandik bereizten gaituen aldea 4.650 milioikoa da, urtean. Oraingo erreforma honek Europatik urrunago kokatzen gaitu.
- EAEko gizarte-babeseko gastua BPGaren %19'2koa da, Europako Batasunean bataz bestez %28'3 dute. Erreformaren ostean, ezinezkoa izango da hainbat beharrizan betetzea, besteak beste, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, 0-3 urte bitarteko hezkuntza, ahoko osasun-asistentzia, osasun mentala, oinarrizko errenta...

## 9 NOREN ARTEAN ERABAKI DUTE ERREFORMA?

Erreforma Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko akordioz egin da. Hala ere, benetako bultzatzaileak PNV eta PP izan dira. Jaurlaritzako gainerako bi alderdiak kontuaren jakitun egin dira. PSOEk ez du ezer auzitan jarri. Argi dago gizarte-ereduari dagozkion gaietan adostasun politiko zabala dagoela politika neoliberalak aplikatzerakoan.

## 10 HORREN INGURUKO EZTABAIDA NON EGIN DA?

**Inon ere ez.** Jaurlaritzak eta aldundiek erreforma borobildu dute, jendaurrera ezer plazaratu gabe. Euskal autogobernuak duen gairik garrantzitsuenaz eztabaidatzeko aukerarik ez da eman, ez ikuspegi publikotik, ez politikotik, ezta sozialetik ere. Gai hori funtsezkoa da jendearentzat orokorrean, gaurko zerga-politikak nabarmen moldatzen baitu biharko gizarte-eredua.

## ONDORIOAK

**PFEZen erreforma txarra da.**

- **Moduan: Ez dira errespetatu edozein sistema demokratikotan errespetatzen diren gutxienezkoak ere.**
- **Edukian: Oparia da kapitaleko errentak eta errenta handiak dituztenentzat, zerga-presioa are gehiago arintzen baitzaie.**
- **Dakarkigun gizarte-ereduari dagokionez: Justizia gehiagoko politika egiteko, eta zerbitzu publiko hobeak eskaintzeko behar diren diru-sarrerak murriztu ditu.**
- **Beste herrialdeen aldean: Europako gizarte-eredutik are gehiago bereizi gaitu.**